

EUROPAKO OSASUN TXARTELA

2004ko ekainaren 1az geroztik, **Europako Osasun Txartelak aldi baterako egonaldietarako formularioak ordezkutzen ditu; E-111 eta E-128 izenekoak, bereziki.**

Txartel hau norbanakoak erabiltzeko da, eta Europar Batasuneko kide den edozein herrialdetan (Alemania, Austria, Belgika, Txekiar Errepublika, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Suedia), Europako Esparru Ekonomikoan (Islandia, Liechtenstein, Norvegia) eta Suitzan aldi baterako egonaldietan osasun-laguntza izateko eskubidea ziurtatzen du; prestazio-mota eta egonaldiaren iraupena kontuan izanda beti ere. Txartelaren balio-denbora urtebetekoa da.

Herrialde askotan osasun-laguntza doakoa izaten da. Hala ere, hainbat kasutan kostuaren kopuru bat edo zenbateko osoa ordaindu beharko duzu arreta jasotzeagatik. Kostuaren zati bat edo kostu osoa ordaindu behar izanez gero, artatu zaituen Estatuko Erakundeak diru-kopuru zehatz bat itzultzeko eskubidea izango duzu, beti ere bere legeriaren arabera. Zure herrialdera itzuli baino lehen, eska iezaiozu dagokizun dirua atzerriko erakundeari, pertsonalki nahiz postaz. Espainiara itzuli arte ez bazenu eskatuko, eskubidez zurea izan zitekeen diru-kopurua berreskuratzeko denbora dezente atzeratuko litzateke.

Premiazko ospitalizazioa gertatu eta osasun-txartela esku artean ez baduzu, Erkidegoaren Araudiaren Gizarte Segurantzari dagozkion xedapenen arabera arreta jaso nahi duzula adierazi behar duzu beti.

Amaitzeko, premiazko osasun-laguntza behar izan baduzu eta eskatutako baldintzak betetzerik izan ez baduzu, ordaindutako gastu guztien fakturak eskatu eta zure herriko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalerako Zuzendaritza Probintzialera jo, diruaren ordainketa balegokizu.

ATZERRIKO HERRIALDEEKIN DAUDEN ELKARREKIKOTASUN HITZARMENAK

Europar Batasunaren barne ez dauden zenbait herrialderekin osasun-laguntzarako hitzarmenak daude, eta hauetan era berean jokatu behar da, beti ere hitzarmen bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik.

Aipatu herrialdeak honakoak dira: Andorra, Argentina, Australia, Brasil, Kanada, Txile, Dominikar Errepublika, Ekuador, Ameriketako Estatu Batuak, Filipinak, Maroko, Mexiko, Paraguai, Peru, Errusia, Tunisia, Ukraina, Uruguai eta Venezuela.



HITZARMENIK GABEKO ATZERRIKO GAINONTZEKO HERRIALDEAK

Osasun-laguntza eta sendagaiak zuzenean eta osorik ordaindu beharko dituzu. Itzultzerakoan, faktura originalak eskatu eta aurkezten badituzu, dagokion Sailaren Zuzendaritzak diru-kopurua ordaindu ahal izango dizu, eremu eta estalduraren baliozko baldintzen arabera.

Txartela eskuratu ahal izateko, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko edozein Arreta edo Informazio Zentrora hurbildu behar duzu. Zure burua identifikatu eta berehala emango dizute. Titularraren ardurapean dauden senideen kasua bada, P-1 eredia aurkeztu behar da, senide horiek jasotzen dituen eredia.

Europako Osasun Txartela eskuratzerik izan ez baduzu, Behin-behineko Ordezko Ziuertagiria (CPS) eska dezakezu Gizarte Segurantzaren Bulego Birtualaren bidez. Ziuertagiri hau norbanakoarena da eta Europako Osasun Txartelaren baldintza berdinekin osasun-laguntza jasotzeko eskubidea ematen dio titularrari, baliopearen hasieratik bukaera arte. Bi datak ziuertagirian ageri dira.

NON ESKURATU TXARTELA

Pio XII. plaza 2, behea 20010 Donostia Tel.: 943 472536 Faxe: 943 472786	Gipuzkoa plaza (Urbieta eraikina) 20200 Beasain Tel.: 943 162270 / 943 162286 Faxe: 943 162513
Arregueta 2, behea (sarrera Arikitz zeharbidetik, z/g) 20600 Eibar Tel.: 943 203311 Faxe: 943 203418	Bartolome de Urdinso kalea, 2 20301 Irun Tel.: 943 619770 / 943 619781
Araba kalea, 16 20800 Zarautz Tel.: 943 833510 Faxe: 943 830174	





QUÉ LLEVAR

D.N.I	Tarjeta sanitaria del interesado.
-------	-----------------------------------

ENLACES DE INTERÉS

www.seg-social.es (trabajadores / prestaciones / asistencia sanitaria)

www.gipuzkoangazte.info (zure aisian zer / ibili munduan/ Bidaiateka)

